

ALEko bazkideei zuzendutako komunikatua, 2. zk.  
G-B 01 Maiztasunak

Oraingo honetan, ALEko Zuzendaritza Batzordearen komunikatuekin jarraituz, "Jose Maria Arizmendiarietaren Gogoetak eta Balioak" proiektuari buruzko informazioa helarazi gura dizuegu.

"Don Jose Maria Arizmendiarietaren gogoetak"

Izenburu horrekin, Arizmendiarietaren idatzietatik Joxe Azurmendik atera eta bildutako esaldi eta gogoetak jasotzen zituen liburua argitaratu zen, Otororatik bultzatuta. (ikusi pdf dokumentua)

Nahikoa denbora igaro osteko ikuspegitik begiratzen zaienean hartzen dute gizaki handiek beren benetako dimentsioa; hori da haien gizatasunaren benetako mailaz jabetzeko modua. Denboraren distantziak nobletu egiten ditu pertsona itzaltsuak, eta modaren hutsakeriak erremedio barik koloregabetzen. Halakoxea dugu Arizmendiarietaren kasua. Haren pentsamenduak irakurrita, nabarmenak dira freskotasuna eta gaurkotasuna; agerian gelditzen dira haren irakaspenak piztu zituzten balioak, Mondragoeko Esperientzia Kooperatiboaren inspirazio iturri eta gidari.

Liburuan 548 gogoeta jasotzen dira, bi kapitulu handitan sailkatuta:

*I – Gizakia eta gizartea*

- 1.- Pertsona
- 2.- Askatasuna
- 3.- Erantzukizuna
- 4.- Morala
- 5.- Heziketa
- 6.- Bizitasunaren zeinua

*II – Lana eta enpresa kooperatiboa*

- 1.- Lana
- 2.- Batasuna
- 3.- Utopia eta iraultza
- 4.- Errealismoa eta ordena berria
- 5.- Enpresa kooperatiboa

**Arizmendiarietaren Lagunen Elkarteko kideon** (ALE) iritziz, esaldi bildumak analisi asko eta askotarikoak egitea ahalbidetzen dio gizarte, enpresa edo kooperatiba gaietan interesa daukan edonori. Hala, ALEko lantalde bat bilduma hori aztertzen dabil duela urte pare batetik hona, azken helburu honekin: ALEren webgunean aplikazio informatiko bat eskuragarri izatea eta aplikazio horrek aukera ematea gogoetak "balioen", "interes taldeen" edo "hitz gakoen" arabera identifikatu eta hautatzeko. Gainera, eskema bat landu da, non balioak gogoetetan errepikatzen diren maiztasunaren arabera ordenaturik eta kidetasunen arabera taldekaturik agertzen diren ("multzoak"). Dagokion unean jakinaraziko da aplikazio informatikoa erabilgarri dagoela, behin operatibo dagoenean.

Orain, 548 gogoetetan maizenik agertzen diren balioetan zentratuko gara (10 edo hortik gorako maiztasuna duten balioak hautatu ditugu):

Balioa	Maiztasuna: balioa identifikatu deneko pentsamendu kopurua	Balioa	Maiztasuna: Balioa identifikatu den gogoeta kopurua
Heziketa	53	Austeritatea	14
Lankidetzeta	46	Askatasuna	13
Eraldaketa (soziala)	39	Lidergoa	12
Pertsona	39	Kontzientzia	12
Elkartasuna	36	Ekintza	11
Konpromisoa	34	Komunitatea	11
Lana	27	Garapena	11
Berdintasuna	23	Inkonformismoa	11
Errealismoa	23	Kultura	10
Erantzukizuna	22	Idealismoa	10
Justizia	17	Berrikuntza	10
Pragmatismoa	17	Hobekuntza	10
Demokrazia	15		

Ez da kasualitatea balioak beren maiztasunaren arabera ordenatuzetik ateratako emaitza. Lehenik heziketa agertzen da, ondoren lankidetzeta, gero eraldaketa soziala, pertsona, elkartasuna, konpromisoa, lana, etab. Balio horien garapen ordenatuak Arizmendiarrrietaren pentsamenduaren zati handi baten formulazioa egitea ahalbidetu lezake.

Heziketa da lankidetzaren garapenerako oinarria, eta haren helburu finalista eraldaketa soziala da. Pertsona da gizartearen protagonista. Pertsonak, elkartasunaren, konpromisoaren eta lanaren bitartez, hau da, lankidetzan arituz, gizartean eragiten du gizartea bera eraldatzeko; hala, bidezkoagoa eta humanoagoa bihurtzen du gizartea.

Gogoetetan identifikatutako balioak sailkatu egin dira aurrez, eskema honen arabera:

1. Balio finalistak:		2. Balio instrumentalak:	
Norbanakoak bere bizitzan zehar lortu nahi lituzkeen helburuak dira. Bi motatakoak izan daitezke:		Eskuratu nahi ditugun xedeak lortzeko erabiltzen ditugun portaerak dira. Bi motatakoak izan daitezke:	
<b>Pertsonalak (FP):</b> Norbanakoak beretzat lortu nahi dituenak. Galdera honi erantzuten diote: zer da zuretzat garrantzitsuena bizitzan? Hasi "Zoriontsu izatearekin" eta "prestigioa izateraino"	<b>Etiko-sozialak (FES):</b> Gizarte osoari mesede egiten dioten nahi eta xedeak dira, hala nola ingurumena zaintzea eta giza eskubideak errespetatzea. Balio moralek gizaki gisa zeure burua eraikitzea eta gizatiarragoa izatera eramaten zaituzte, baina hori bakarrik lortuko duzu balio horiek esfortzuen bidez eta behin eta berriz saiatuz eskuratzea erabakitzen baduzu. Galdera honi erantzuten diote: zer nahi duzu zuk munduarentzat?	<b>Etiko-moralak (IEM):</b> Azken balioak lortzeko behar diren jokamoldeei dagozkien, eta ez dute, berez, xede existentzialak zertan izan. Halako balioak beste pertsonetikiko harremanetan jartzen dira praktikan. Galdera honi erantzuten diote: 110la uste duzu jokatu behar dela zure ingurukoekin?	<b>Gaitazunezkoak (IL):</b> Indibidualagoak dira, eta, sozialki baldintzatuta badaude ere, ez daude moralitatearekin eta erruduntasunarekin zuzenki lotuta. Galdera honi erantzuten diote: zer uste duzu eduki behar dela bizitzan lehiatu ahal izateko?

“Sailkatutako balioen zerrenda” dokumentua erantsi dugu. Bertan sailkapen mota adierazten da (FP, FES, IEM, IL) eta baliook dagozkien gogoetekin lotzen dira.

Hurrengo komunikatu batean, sailkapen horri lotutako zenbait alderdi eta J.M. Arizmendiarrrietaren gogoetak aztertuko ditugu. Informazio hau guztia jaso ondoren gaian sakontzeko interesa baldin badaukazu, ez izan zalantzarik, jar zaitez Gemma-rekin harremanetan (amigos.jma.lagunak@mondragon.edu) (telefonoa: 674 04 15 90).